

[Eusk/Cast] ¡Fuego al Estado fascista!

COMITÉ SOLIDARIO DE GASTEIZ -GASTEIZKO ELKARTASUN KOMITEA ::
25/01/2021

Desde el Comité Solidario de Gasteiz llamamos a boicotear el estado de alarma

[Euskara]

Aurreko urriaren 25ean, espainiar Estatuak, pandemiaren aitzakia baliatuta, bigarren alarma-egoera ezarri digu. Honakoan, hala ere, ezberdintasunak dakartzkigu: bereziki, langile eremuetan itxialdi selektiboak, udalerrien itxiturak, etxeratze aginduak, ostalaritzaren itxierak... etxeko konfinamenduak ahaztu gabe. Argi eduki behar dugu, alarma-egoera, maila guztietako errepresioan errotzen den salbuespen ikur bat besterik ez dela; oraingoan, aitzindaririk gabeko mundu-mailako osasun krisiari aurre egiteko, antza.

Hala ere, inozo hutsa izan beharko genuke tesi hori sinesteko. Izan ere, erregimenari, edozein estatu kapitalistari bezala, gure osasunak bost axola dio. Egiazki, gizarte kapitalista ustelak ekarriko dituen krisi politiko eta ekonomikoko epe garaikidearen aurrean, herritar masaren antolakuntza ekiditeko, errepresio politiko eta sozialetara zuzenduta daude hartutako neurri guztiak. Euskal Herrian (Iruñean), osasun arrazoiak zirela eta, Patxi Ruizekin elkartasuna erakusteko manifestaldien debekuak bizi izan ditugu, gaur egun kapital bateraketa prozesuaren azkartzeak bizi ari dugun bezala: banka fusioak, enpresa txiki eta ertainen itxierak, norbere herrialdeko oligarkia finantzarioa jabetzen duten enpresa handien sekulako irabaziak... Proletalgoak, hamarkadak joan ahala, jasandako pobretzea kontuan hartu gabe. Gainera, egoera honek langile klasearentzat suposatzen duen kolpea leuntzeko, martxan jarritako sasi-neurri sozialak gezurrak besterik ez dira izan. Bizitzeko gutxieneko diru-sar

rera, salbuespenak salbuespen, inori ere ez zaio eman. ABEEak (Aldi Baterako Enplegu-Erregulazioko Espedienteak) ez dira jaso, gaizki eta berandu ez bada izan, kaleratzeek abiadura bizian gauzatzen jarraitzen dute... eta horrekin batera, osasungintzako inbertsioa txikitu egin da, gastu militarra zabaltzearen truke. Estatuaren asmo aitopen hutsa.

Bestalde, hainbat sektorek diote, mundu mailan ere neurri berdintsuak ezarri izan direla, eta, "osasun arazo larri" honen aurrean, espainiar Estatua gainontzeko herrialde garatuekin batera kokatu dela. Gezurra galanta. Hedabideen lanak, antza, sektore "aurrerakoien" artean ere, errotzen ari ditu. Espainiar Estatua, pandemiaren aurrean, Estaturik errepresiboenaren lekua hartu du. Pedro Sanchez bera, eta haren jarraitzaile leiala den Pablo Iglesias ere, behin eta berriz harrotzen dira Europako neurririk zorrotzenak ezarri dituztela esanez. "Aldaketaren" gobernuak, Mozal-Legearen bitartez, aspaldiko zigor kopururik handienaren aplikazioa dekretuz inposatu du. Kopuru hori, Erresuma Batuko edota Irlandako kopuru txikiekin alderatuta, neurritz kanpoko mailan kokatzen da. Hainbat iritzik, espainiar itxialdia, neurri txinatartzat hartu izan dute; baina, Txinan, telelanean aritu ezin ziren langileen sostengu ekonomikoa Estatuak bere gain hartzen zuen bitartean (lanera joatea debeka

tuz), espainiar Estatuan, eta Hego Euskal Herrian, bereziki, ekoizpen kapitalistari

jarraipena emateko, leporaino betetako metroan bidaiatzera eta lantegiak betetzera behartzen gintuzten. Gainera, ezin dugu ahaztu “historiako gobernurik aurrerakoiena” delakoak onartutako langileon-aurkako neurri horiek guztiek EH Bilduko traidoreen eta bere txalo-jotzaileen oniritzia dutela. Izan ere, Madrilgo aurrekontuak onartzeko zalantzarik ez dutela izan ikusi berri dugu, inbestiduran egin bezala.

Izan ere, erailtzen gaituena ez da birusa, kapitalismoa baizik. Osasun-sistemaren desegituraketak, murrizketek, material zein langile faltak, eta lan-baldintza penagarriek azaltzen dute ospitaleen gainkarga; urtero gripearekin bizitzen dugun egoera berdina. Adinekoen egoitzetan, arreta ezak heriotzen %72 ekarri du (Madrilgo Autonomia Erkidegoko zuzentarau ospetsuetan idatziz agertu bezala), eta, gainera, zenduen %95 60 urtetik gorakoa izan da, Estatuak biztanleria ahulena babesik gabe utzi duen erakusle garbia. Sistema terrorista honen aurrean, ezin dugu besoak gurutzaturik egon.

Hori guztia dela eta, Gasteizko Elkartasun Komiteak alarma-egoera boikotatzeko deia luzatzen du. Euren salbuespen neurrien eta murrizketa sozialen aurka antolatu beharra dugu. Gainera datorkigun egoerari aurre egin diezaioten elkartasun sareak jos ditzagun gure auzoetan. Etxeratze-aginduen, errepresioaren eta itxialdien aurkako herritar batasuneko eremuak eraiki ditzagun. Elkartzeko, antolatzeko eta aldarrikatzeko eskubidearen alde borroka dezagun. Langileak, euren miseria-egoeren aurka borrokatzeko asmoz, elkartzeari beldur izatearekin amai dezagun. Ez diezaiegun utz, osasun aitzakiak baliatuz, oraindik bageneuzkan askatasunak ukatzen.

Denok elkarrekin etxeratze-aginduaren eta bere alarma-egoeraren aurka!
Har itzazu kaleak eta ezarri dizkiguten langileon aurkako neurriak sala itzazu!
Estatu faxistari SUA!

--Comité Solidario de Gasteiz -Gasteizko Elkartasun Komitea

[Castellano]

Desde el pasado 25 de octubre, el Estado español nos ha impuesto un segundo estado de alarma con la excusa de la pandemia. En esta ocasión viene acompañado de confinamientos selectivos, principalmente en zonas obreras, cierres de municipios, toques de queda, cierres del sector hostelero, e incluso, confinamientos domiciliarios. Hemos de tener claro que el estado de alarma no es otra cosa sino una figura de excepción que se apoya principalmente en la represión a todos los niveles, en este caso para, supuestamente, frenar una crisis sanitaria sin precedentes a escala global.

En realidad, habría que ser muy ingenuo para aceptar esta tesis pues al régimen, al igual que a cualquier estado capitalista, jamás le ha importado nuestra salud. Todas las medidas adoptadas están yendo encaminadas a la represión política y social para evitar la organización de las masas populares ante la actual fase de crisis política y económica a la que está abocada la putrefacta sociedad capitalista. Ya hemos vivido en Euskal Herria como se prohibían manifestaciones en solidaridad con Patxi Ruiz alegando motivos sanitarios (Iruña), y también estamos viviendo como se acelera el proceso de concentración de capitales de manera clara: Fusiones/absorciones bancarias, cierre en masa de pequeñas y medianas empresas, beneficios desorbitados para las grandes empresas que encarnan a la

oligarquía financiera de sus respectivos países... Sin contar la depauperización progresiva que viene sufriendo el proletariado desde hace décadas. Además, las supuestas medidas sociales

para amortiguar el golpe a la clase obrera que supone esta situación no han sido más que mentiras. El ingreso mínimo vital no ha sido concedido a prácticamente nadie, los ERTE no se han pagado o se han pagado mal y tarde, los desahucios continúan a toda máquina... y para más inri, bajan la inversión en sanidad, aumentando el gasto militar. Toda una declaración de intenciones.

Por otro lado, algunos sectores inciden en que las medidas que se están tomando a escala global son iguales y que, ante este 'gran problema sanitario', el Estado español se posiciona con la mayoría de países desarrollados. Nada más lejos de la realidad. Parece que este movimiento mediático está surtiendo efecto hasta dentro de los sectores supuestamente 'progresistas'. El Estado español se ha posicionado como el más represivo al respecto de la pandemia. El propio Pedro Sánchez y su perrito faldero Pablo Iglesias se han manifestado en más de una ocasión jactándose de ser el país con las medidas más duras de toda Europa. El gobierno 'del cambio' ha impuesto por decreto la aplicación del mayor número de sanciones por la llamada Ley Mordaza desde su aprobación. Recordemos que prometieron derogarla. La cuantía de estas multas se sitúa a un nivel estratosférico comparado con las simbólicas multas que se aplicaban en países como Reino Unido o Irlanda. Algunas voces plantean el confinamiento español como una suerte de medida 'China', pero mientras en China el Estado se ocupaba de sostener económicamente a los confinados que no podían realizar teletrabajo (A los cuales prohibía ir a trabajar), en el Estado español y en concreto en Euskal Herria, nos obligaban a viajar en el metro o a llenar las fábricas para mantener la producción capitalista a todo trapo. Además, no hay que olvidar que todas estas medidas anti-obreras que ha aprobado el supuesto 'gobierno más progresista de la historia', tienen el completo beneplácito de los traidores de EH-Bildu y sus palmeros. De hecho, ya hemos visto como no han dudado ni un instante en apoyar los presupuestos de Madrid, como no dudaron ni un segundo en apoyar la investidura.

En realidad, lo que mata no es el virus sino el capitalismo. El desmantelamiento prácticamente total de la sanidad pública, los recortes, la falta de medios y trabajadores y las condiciones laborales lamentables explican la situación de colapso en los hospitales, situación que hemos vivido cada año, por ejemplo, con la gripe. La desatención médica en las residencias de ancianos (Puesta de manifiesto por escrito en las famosas directivas de la comunidad de Madrid) ha provocado el 72% de las muertes hasta la fecha y, además, alrededor del 95% de los fallecidos son mayores de 60 años, lo cual pone de manifiesto el total abandono de la población más débil por parte del estado. No podemos seguir de brazos cruzados ante este sistema terrorista.

Por todo ello, desde el Comité Solidario de Gasteiz llamamos a boicotear el estado de alarma. Hemos de organizarnos ante sus medidas de excepción y contra sus recortes sociales. Tejamos redes de solidaridad en nuestros barrios que hagan frente a la situación que se nos viene encima. Construyamos espacios de unidad popular contra el toque de queda, contra la represión y los confinamientos. Peleemos por nuestro derecho a asociarnos, organizarnos y manifestarnos. No podemos permitir que los trabajadores tengan miedo a juntarse para luchar contra sus condiciones de miseria. No dejemos que con pretextos

sanitarios nos arrebatan las pocas libertades que nos quedaban.

¡Todos juntos contra el toque de queda y su estado de alarma!

¡Tírate a la calle y denuncia las medidas anti-obreras que nos están imponiendo!

¡Fuego al estado fascista!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-lo-que-mata>